

Baskepensiones EPSVren Baskepensiones Bermatua 10 Planaren araudiaren laburpena Bermearen azalpena eta ezaugarriak

A.- BERMEAREN AZALPENA ETA EZAUGARRIAK

Bilbao Bizkaia Kutzak Baskepensiones EPSVren Baskepensiones Bermatua 10 Planaren alde bermatzen du 2020ko apirilaren 30eko balio likidagarria; balio hori, gutxienez, 2010eko uztailaren 15eko balio likidagarriaren % 100ari, % 3ko UTB gehitzearen ondoriozko emaitza izango da.

Beraz, BBK-k ondoriozko balio likidagarriaren eta bermatutako balio likidagarriaren arteko aldea ordainduko du, eta zenbateko hori honako prozedura honen bidez kalkulatu da:

$$VLG = VLI * \{(1+0,03)^{(3577/365)}\}$$

Non:

VLG: Bermatutako balio likidagarria.

VLI: hasierako balio likidagarria, 2010eko uztailaren 15ean.

Berme honen eraginkortasuna, planaren ondarea osatzen duten aktiboen balio likidagarria kalkulurako dagoen gaur eguneko lege-markoa edo BGAEen edo planaren ondarea osatzen duten aktiboen erregimen fiskala ez aldatzearen baldintzapean dago, bestela, honako kasu hauek, aipatutako konpentsazio-berme hori ez da eraginkorra izango edo dagokion neurrian baino ez da izango eraginkorra, eta bere zenbatekoaren kalkulua jarraian zehazten den erara egingo da:

a.- Planaren ondarea osatzen duten aktiboen kitapen-balioaren kalkulurako gaur egun dauden araei eragiten dien lege-aldaketa baten ondorioz, balio gutxitzea gertatzen denean, konpentsazioa ez da eraginkorra izango aldaketa horrek eragin ez duen balio aldean baino.

b.- BGAEri ezarri dakiokkeen zerga erregimenari eragiten dion lege-aldaketa baten ondorioz, balio gutxitzea gertatzen denean planaren ondarea osatzen duten aktiboen kitapen-balioan, konpentsazioa ez da eraginkorra izango aldaketa horrek eragin ez duen balio aldean baino.

c.- Aldaketa konstituzionala edo lege-aldaketa baten ondorioz, BGAEen ondarea osatzen duten jaulkipenen interesasen baldintzak, epeenak edo beste edozein baldintza aldatzen direnean, eta ondorioz aktiboen kitapen-balioaren gutxitzea gertatzen bada, konpentsazioa ez da eraginkorra izango aldaketa konstituzional edo lege-aldaketa horrek eragin ez duen balio aldean baino.

B.- BASKEPENSIONES EPSV-REN “PLAN BERMATUA 10” REN DESKRIBAPENA

Ezarritako berme-epealdian, 2010eko uztailaren 15etik 2020ko apirilaren 30 arte ez da honako hauek egiteko aukerarik izango:

- Berreskurapenak .
- Baskepensiones EPSVren beste plan batzuetarako traspasoak.
- Leku aldaketak beste EPSV batzuetara.
- Baskepensiones EPSVren “Baskepensiones Bermatua 10 Plan”era 2010eko uztailaren 15etik aurrera egindako ekarpen gehigarriak.

bilbao bizkaia kutxa

Gran Vía 30, 48009 Bilbao. 94 401 70 00. www.bbk.es
Merk. Erreg. = Reg. Merc.: T:BI-1, F: 112, 0 =H: BI-9ª, I: 1ª
IFK =CIF: G 48412720

Emango diren prestazioak arautegiz aurreikusitako gertakizun hauengatik emango dira:

- Bazkide arruntak erretiroa hartzea edo egoera parekagarriren batera igarotzea.
- Ezintasun Handia, erabateko Ezintasun iraunkorra lan guztietarako edo erabateko Ezintasun iraunkorra ohiko lanbidean jarduteko, bazkide arruntari erasaten diolarik.
- Bazkide arruntaren heriotza.
- Bazkide arruntaren iraupen luzeko langabezia.
- Bazkide arruntaren, haren ezkontidearen edo lehenengo mailako odol-senideen gaixotasunak sorrarazitako gastuak, 3.000 eurokoak edo hortik gora direnean.
- Ahalmen-urritasuna duten pertsonen alde eraturako planez denaz bezainbatean eta horiek indarrean dagoen araudiak une bakoitzean ezarritako baldintzak betetzen dituztenean, emango diren prestazioak arautegiz aurreikusitako gertakizun hauengatik emango dira:
 - Erretiroa hartzen duenean ahalmen urriko pertsonaren ezkontideak edo haren senideetako batek senidetasuna zuzenekoa zein albotikoa, hirugarren mailaraino barne, delarik, edo indarrean dagoen araudiak kasu bakoitzerako ezartzen dituen lerro eta mailakoa
 - Ahalmen urriko pertsonaren ezkontidearen edo haren senideetako baten ezintasuna, senidetasuna zuzenekoa zein albotikoa, hirugarren mailaraino barne, delarik, edo indarrean dagoen araudiak kasu bakoitzerako ezartzen dituen lerro eta mailakoa.
 - Ahalmen urriko pertsonaren ezkontidearen edo haren senideetako baten heriotza, senidetasuna zuzenekoa zein albotikoa, hirugarren mailaraino barne, delarik, edo indarrean dagoen araudiak kasu bakoitzerako ezartzen dituen lerro eta mailakoa.
 - Ahalmen urriko pertsonaren ezkontideari edo haren senideetako bati erasaten dion iraupen luzeko langabezia, senidetasuna zuzenekoa zein albotikoa, hirugarren mailaraino barne, delarik, edo indarrean dagoen araudiak kasu bakoitzerako ezartzen dituen lerro eta mailakoa.

2010ko uztailearen 16ra arte, berme-epealdiaren hasiera eguneko hurrengo eguna, ez dira baloratuko merkatuan Tresna Eratorrien posizioak.

Prestazioak ordaintzeko mota kapital erakoa besterik ez da izango.

Bazkide arruntak, Planaren Estatutuen eta Araudien ale eguneratuak bere esku ditu doan, BILBAO BIZKAIA KUTXA bazkide babeslearen edozein sukurtsaletan, BASKEPENSIONES, EPSVren egoitza sozialean eta baita www.bbk.es y www.baskepensiones.es. web orrietan ere.